

Iturriaga' ren

ipuak



"Erkaltzak"

1932

ABRIL



M-57608
F-58362

ATV
27061

ITURÍAGA' ren IPUIAK.

Lekuona'tar Imanol'ek txukunduta.

Aitzol'dar J.'ren Aúre itzak.

Txiki'ren márezkiak.

—
"EUSKALTZALEAK" argitaldua.
—

Tolosa'n, 1932.

Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren etxean.



AURE ITZAK.

EUSKO IPUIAK.

Ipuien sorkundea.

Abereak, noiz-bait, itz egin ote zuten? Beren izakerari zor zaiotelako ez noski. Abereak landareak baño bizitz aberatsago eta argiagoa izan aŕen, ez zaizkigu mintzatzen. Gizonak bezin sentsumen ernai ta esnakotaz apainduak dira abereak. Sen zorotzak erabil-arazten ditu. Ala ere itzik ezin oguz lezateke.

Beraz, ez ote dira abereak iñoiz mintza?

Bai, alajaña. Jainkoak bereziki nai izan duanean. Ba-laam'en astoak nagusiari zuzendutako erantzun mintsua-ren beŕi nork ez ote daki? Gure lenen gurasoei sugeak leunki itz-egindakoaren ondokoaz ezin aztu geinke.

Olerkariak, ere, Jainkoaren gisa, jolas antzean or-dea, aberei mintza-arazi diote. Amaika ipuitan abereak izlari ager zaizkigu.

Abereen alkarizketa oiek neurtzea Indi'ko olerkariet bururatu emen zitzaien. "Pantxalantra", Pilpai inditar olerkariaren ipui-sorta zaarenetzat jo genezake. Esopo'k antziñan gerkerara itzuli inditar onen alegiak: Eso-po'renak, beŕiz, Fedro eromataŕak, latineratu.

Euskeldun ipuilariak.

Izkera geienak ipullari trebeak izan oi dituzte. Englande'n, Gay alegilari—ipui egile—ospetsuena: Doitxet'i'n, Lessing eta Gellert gorenenak: Italia'n Roberti, Piggnotti eta Bertola irudipenez aberatsenak: Parantze'n La Fontaine'k berenganañoko ipuilarien izen argienak estali zituana: España'n Hartzenbusch eta Campoamor golargiz jantzenak.

IV

Euzkadi, berez, izan zaigu ipuillari. Euskera ernai zaigun basteñetan ipui eta alegi erikoiak entzun genezazke. Atso zimelari Balearain'go auzoan neronek ipuixto batzuek ikasi nizekion 1923'garren urtean. Ona, Eusko-Folklore ofitxoetan argitaratu nituanetako bat.

"Astoa ta Otsoa."

"Astoak bizkargañean zagi-ardoa zaramala Otsoko aurkitu zuan. Otsokok samurki Astokori dio:

*— Agur, agur astoa.
— Ongi etorri otsoa,
Nik iretzako bazeukeat
Zagian ardo gozoa.
— Astoa, ez nak egafi,
Sobra natxeok goserik.
Ire buru ta belarriak
Gaur neretzako aparti.
— Or goien, goien ermita
San Bartolome deritza:
Antxen meza bat entzun da gero
Jan nazak nai baldin banauk.*

Otsoaren baiezkoaz ermitara igo ziran. Baselizan sartutakoan Astokok, ostikoz, atea itxirik Otsoko atarian utzi zuan. Amoro biziaz deadar egiñik Otsokok dio:

*— Asto zara, mukizu,
Txikirik asko dakizu.
Or goien beltzian nik
Afpatzen ba-zaitut
Geiago mezarik
Entzungo ez dezu."*

Jatoriz Eusko-eria ipuillari izaki. Ipui eta alegi oiek eritaren ezpainetatik jaso beañean gaude euskaltzaleak. Ipuillari trebeak guretatik sortzea afigaria ez da noski. Oetatik geienak euskeraz idatzi zutenak: banaka batzuk erderaz, ere, bai. Samaniego'tar Peli Mirena, arabara, goi-gorenetaiko alegilari bikaña, euskotar erdel-idazleetan

bikañena; bizkaitara, bestea, Ibañez-Erenteria'tar Joseba A. apaltxeagoa izanik, trebea au ere: azkenez, Iriarte ospetsua, jatoriz euskotara.

Euskerak, antziñan, ipui-olerkariak izan ba-zitun ere, aien izenik ez da gureganatu. Euskeraren pizkundia XIX'garren mendean ernai zanerako, alegilariak ager zitzaizkigun, ordea.

Bat-batean alegi eta ipuien udaberria loretu zitzaion euskerari. Ituriaga, oraingoan gure gizona, lenen buru zala. Olerkari talde mardula, gero, oparotsu Ituriaga'ri jaraituaz. Ara izenak: Artxu, zuberoraz, Goietxe eta Adema, laburdieraz, Azkue, Zabala, Mogel eta Añese-Beitia bizkaieraz, Artola'tarak, Otaegi, Manterola, Uranga, eta abar, gipuzkeraz.

Eusko elerti baratzeko kimu loretsuak, alegi eta ipuiak izan zaizkigula aitor genezake.

Ituriaga irakasle.

Ituriaga, Ernaniara jaiotzez. Uri onetan ere, bizitz guzira, bertan goxo. Apaizgaien ikastaroetan, Andoain'en lendariz, Oñati'n urrena ez ezik bere jaioteriari il-arteraño josia bizi izandako gizona degu Ituriaga apaiza.

Karlarañen zerilzan guda amaian, 1839 eta 1840 urteak, Ernani'ko egonaldi luzea uratuaz Laburdi'ko Arkangoitz jaunaren jauregian igaro zituan. Jauregi ortantzen bere alegiak neurtu ote zitualakoan gaude.

1778'ko Ilbeltzaren 31'an jaiotako euskaltzale zintzo onen bizia, irurogeita amalau urte betetakoan itzali zion eriotzak.

Gipuzkoa'ko gaztediari eskeñi zizkion bere lan guztiak. Euskotar mutiak buruz apaindu eta gogoz sendotzeagatik 1818'garren urtean ikastetxea irasi zuan, bere anaia eta Lafarte ereslari ospetsua laguntzañe aukeratuaz.

Irakaskintza arloetan ez zan nolanaikoa. Gipuzkoa guzian zabaldutako esaerak garbi darakus norañokoa ote zan Ituriaga'ren izena: "Ituriaga'k dakian baño geiago ere, erakusten omen du." Ala zion, beintzat Manterola eusko-pizkunde zale bikaiñak. Ituriaga'ri zor zaito bere ikasleentzat eratutako euskel-erdera irakasbide egokia ere.

Ituriaga alegelari.

Gazteen almen edergari eta gogoen sendogari zeikien erabide egokiena aukeratzeak urduritsu zerabilkian. Gaztetxoen buru-biotzak ernai eta argitzeari leiatsu ekin zion.

Azkenez, alegi eta ipui bidea egokiena bezela bereganatu zuan. Samaniego'k Bergara'ko ikaslientzat alegiak neurtu zituan bezelaxe, Ituriaga'k ere Ernani'ko ikastetxe koentzat mota oretako olerkitxoak sortzea bururatu zitzaion.

Aurre-eskaintzan olaxe dasa:

*"Nere Euskalefiko — Gaztedi edefa,
Ez det uste dedala — Egin lan alpeña,
Ipuiak ipintzean — Gure zortzikoan."*

Mogel andereñoak, ere, bide onetatik jo zuan irakaskintza zuzenak "gaztetxoei eta nekazariei" agertzeko.

Emen, ipui sorta onetan, ikus zenezake Ituriaga'ren lan onurakoña. Euskera ezeza darabilki ipuilariak, mairamar mordoña baderitzaizute ere. Oraingoan argitaratzeko, olerkitxoak landu, apaindu eta oraztu egin ditugu, akatsak zuzenduaz eta utsuneak berdinduaz. Gaur eskutarteetan darabillkigun euskera, Ituriaga'ren gizaldiak zarabilena baño garbiagoa eta txukunagoa bai-degu.

Ainbat gai-eder alegi oietan, ordea, irakurleak arki lezazke. Aldizka bertso kaskar samar, ezezegi neurtuak ba-dirudizkizu ere, neurtitz iaioak, esakera jatofak, ateraldi zorotzak eta alako eder-erakusketa apaiñak arkituko dituzulakoan naukazu.

Ona emen, adibidez, olerki zatitxo batzuek. Ipuiak, "Atsoa ta arkakusua" deritza. Bertso arin oiek irakurtzen dituzuala idurimenera, noski, alako atso beritsu-elizkoiaren itxura berezia datorkizu ziur.

"Gure goiko bizitzan — bizi zan atsoa
Zan elizarakoia — zan Jaungoikozkoa.
Beti mar-mar zegoan — etxean; elizan
Beti pater-nostera — esaten ari zan;
Ez zituen utzitzen — zer nai gerta zedin,
Naiz katafoa izan — naiz sabelean min,
Eguneroko meza — erosarioa
Eta besper ondoren — zan kalbarioa.
Banan zuen gaisoak — eraman txikia,
Edozein gauzak zuen — estutzen guztia."

Neurtitz biziagoak, esakera aberatsagoa, olerkitxo guzia apalñagoa "Esne saltzailea" buruz daramazkiana. Margo gordiñak ditun ipuiak begi zuloak asetzeko añaiko neska lirain baten irudia dagerkigu:

"Neskatx bat zijoan bein — plazara neguan
Eskuan txantxiña ta — kaikua buruan.
Gorputz liraña zuen — geria txit mea,
Ilea orporaño — ufe kolorea;
Ortzak perlak bezela, — aoa txikia,
Begiak beltz, aundiak, — ezpañā goña;
Ibiñian iñori — ezer zor etzion,
Itz batean, jendeak — begiratzen zion."

Aukera genezazke beste ofelako bertso egokirik. Batean, galdor aundi goñitsua, aro daramakin olaña aurkezleko; bestean astoaren kintenkeria agertzeko; azarlareren maltzurkeria, beste bein, eta abar.

Alegi-gai guziak ez dira noski Ituriaga'k asma-tuak. Atzeriko ipuilari gorenak ere beren olerkietan erabil-itakoak ez zituzten buru-barnetik sortuak. Gai oiek, edo antziñako alegilarien olerkitxoetatik jasoak edo efia-

VIII

ren ezpaiñetatik entzunak dira. Gutxi, oso, norberak utsetik asmatuak.

Ipuilari geienak, berenez, alegi-gaiak apaindu eta irudiz aberastu dituzte edertasun ugari erantsiaz. Bakoitzak alduan eran olerkiak josi izan dituzte. Ari ori, ba, alegilari bakoitzena izan oi da.

Calderon de la Barca'ren ahapalditxoak, argi-bidez, egoki datorkigu. Gazte bat galtza zarak josten ari zan:

*"Remendaba con sigilo
sus calzones un mancebo:
yo que le acechaba, vilo,
y pregunté: ¿Que hay de nuevo?
Y él respondió: Solo el hilo."*

Itzen joskera, ba, eta irudiz apaintzea alegilari geien lana izan dala Hartzenbusch ipuilariak dasa. Gure Ituriaga'ren elburu txalogariena, auxa: arotz ipuiak euskeraltzea eta eusko gogoari atsegin zaizkan amets ereduz eta irudiz apaintzea. Euskotasunez, olerkari atzeritarren alegiak kutsutzea.

Alegiaz, ez ezik, beste ainbat olerki, nekazari gaiak bereziki, Ituriaga jaunak ba-ditu. Virgilio eromatar poetilarien "Egloga" entzunak ere euskeraldu zizkigun.

"Gipuzkoarak" zeritzan neurtitzak ordea atsegin zaizkigu biziki. Aberkoi, Euskaleriko maitale gartsua dagerkigute-ta. Tamalgaria, olerkariarentzat, Gipuzkoa Napaferitik aldenduta Kastelu'ko uztariari lotzea: negargaria, euskotaarentzat, gudatean atzeriko sasi-erege V'gañen Karla alde jokatzeko, ez bai zuan, onek ere, gure "Lege-zara" maite. Euskaldunen batasunari deadar dagio Ituriaga'k, eusko izate berezia eta "Lege-zara" iraunkor bizi ditezentzat.

Euskaltzaletasuna zabaltzearen; euskera piztu dedin beñero, eun urte buruz, Ituriaga'ren ipuiak argitaratzen ditugu.

AITZOL'dar J.

EUSKALERIKO GAZTEDIARI.

Nere Euskalefi'ko
gaztedi edera:
Ez det uste dedala
egin lan alpeña
ipuiak ipintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nai bada,
arturik gogoan.

Ba'dirade latinez,
ba'dira erderaz;
ez al-ditugu bear
guk ere euskeraz?
Bai: on da jakitea
lengo aldietan
txit ondo zekitela
mintzatzen izketan
txakur eta katuak,
auntzak, azeriak...
Itz batean, orduko
abere guziak.

Ala dio Esopo'k...
gizon egitia
ote-zan ez dakit nik,
ala gezurtia;
bañan ez da zalantzik
zala txit txikia,
bizkar-makufa, bañan
jakintsu aundia,
lendabizi Esopo
onen mesedeak
mintzarazi bai-zitun
zentzuz abereak.

Aditurikan oien
jardun-erausia
maiz egingo dezute
algara-ifia;
baita esango ere
egñikan para
"ez uan, oratikan,
jende ura ain nafa"...

Ipuian bukaeran
dauden esakiak
agiri da dirala
egi txit aundiak;
eta sartzen ba-dira
zuen biotzetan,

ez zaizute damuko
zeren egunetan.

Ora Esopo jaunak
nai duan saria,
eta ora nik ere
nai dedan guzia.



KATU BIAK.

Etxe aundi batean
zituzten katu bi:
bata Zapiron eta
bestea Mizipi.

Biak zeuden gizenez
lertzeko zorian;
nork beste alako bi
arkitu eñian?

Maitatuak ziraden
etxean biziro:
aien bizia oi zan
jan, josta eta lo.

Sukaldean ziraden
biok txit prestuak;
baita sapaian ere
afatoi-saguak.

Samurégia zuten
gaxoak biotza
iñori emateko
zarpaz eriotza.

Goiz batean zeudela
eltzeen ondoan
lufean etzin-eta
lo gozo-gozoan
abafots batek ditu
batetan esnatzen
ta sutondora dute
biak begiratzen.

Ikusten dute suan
burni-buruntzia
eta bertan jiraka
kapoi bat, aundia.

Erasotzen diote
biok kapoiari
eta asten dira jaten
atzaparka, lafi,

Begiak suturikan
eta marmariaz
isatsa aruntz ta onuntz
maiz erabiliñaz.

Ikustekoak ziran
bat eta bestea
okotzetik tantaka
jarioz koipea.

Jan zituzten orduan
mami ta ezurak
baita garbitu ere
mingañez sudurak:
Mizipi'k omen-zion
esan Zapiron'i:
—Gauza bat orain zaidak
gogoratu neri:
jan degun ezkeroztik
kapoitzar guztia
jan dezagun laisterka
orain buruntzia.

—Ago Ixilik, mutil; —
dio Zapiron'ek —
kontzientzia, ori
egiteko non dek?

Baita erantzun ere
iñiaz Mizipi'k:
—Astoa! Esaerak
zer dion ez dakik?
“Kontzientziaraño
“etorri ezkerro,
“mandoa nerea dek...
“gerokoa gero”.

Zapiron'ek, entzunik
zer zion Mizipi'k:
—Jan zak naiba-dek—dio—
ez diat jango nik.

Zenbat ez ote-dabiltz
kristaben artean
kezka-txikiz beterik,
ezin dutenean;
eta besteren gauzaz,
kezka txiki gabe,
egingo lirakenak,
al ba-lute, jabe?



ÉREMENTARIA TA TXAKÚRA.

Érementari batek
kanpora jutean,
txakúra utzi oi zuan
etxezai atean.

Egun batez lapurak
dirua kutxatik
ostu zuten, sartu-ta
atzeko aldetik.

Oartu zan orduan
érementaria
etzegola etxean
zan diru guztia.

Burua galdu eta
arturik makila
zokorik-zoko or dabil
zakuraren bila.

—Atorkit onontz, Turko—
dei egiten dio.

Zakúra ixil-ixilik
ba'dijoakio,
guztia bildurturik
belarriak bean,
burua makur, eta
isatsa anka-artean.

—Turko — esaten dio —:
zertarako aut nik?

Ez diok etxeari
begiratutzen ik.
Maluaren otsak ez
au beñere esnatzen;
plater-soñuak, befiz,
laister au ernaitzen;
lanari utzi ta jaten

asten naizenean,
utsik-gabe, an aukat
zut aldamenen;
ez dek iñoiz ikusten
nere sutegia,
maiean ikusten dek
ire nagusia.

Zer uste dek aizela
duke edo kondea
ofela bizitzeko
ase ta betea,
beti etzin-da lotan
jeiki gabetanik
sukaldera joan-da
asetzeko baizik?

Itz oien ondotikan
Turko'k ikustean
nausiaren makila
zuala gañean
iges egiten dio
aureko atetik
ta ojuka asten zaio
burua jasorik:
—Zer du geiago, Jauna,
nik baño kondeak?
Nik bezain ongi daki
zure mesedeak
sortzetik dakarela
nork bere patua,
naiz dala zakufa ta

naiz dala katua.
Ez zituan zakufak
egin Jaungoikoak
lanean aritzeko,
baizikan astoak.

Nausiak ikusirik
ain burua gora
bilduraz ez zekion
oratu lepora,
erantzun bide-zion
itz goxo leunakin:
—Ez det nai, Konde jauna,
nik jardun zurekin.
Orlakoak badira
zuen erausiak,
buka ditzagun emen
gaur gure auziak.
Etxe au nerea da,
beraz ba'dakizu:
gaurtikan jun zindezke
nai dezunera zu.
On da ikusi dezazun,
Turkotxo, gaur bertan
nola bizi oi diran
beste etxeetan.
—Emen baño obeto
beintzat baldinbetan...

Ta asten da, emen sartu
eta ortik irten;

— 7 —

ez du Turko'k guztizko
etxerik arkitzen:
Or erabili bear
tornu-buruntzia
eretzeko arentzat
ez dan arikia;
emen itxu-aurreko
du bere jarduna,
beti barau, ez dezan
galdu osasuna;
azkenikan beste etxe

aberats batean
gau-t'-egun an daukate
loturik katean.

Onela igafi dio
surtako laratzak
etxealde danetan
oi dirala beltzak;
eta lan egiteko
gure Jaungoikoak
guzti-guztiok egin
ginduala astoak.

TXAKUR BIAK.

Sultan zan zakur ausart
guztizko jalea;
batez ere aari-
-saieski-zalea.

Izta lodi eder bat
bein, uste-kabea,
nagusia zion
ostu bere etxean.

Pinto, beste txakura,
ez jale txikia
zokoik-zoko zebilen

akiturik ia
Sultan'en bila; eta
sukal-bazterean
or noizpait arkitzen du
etziñik lurrean
iztefari tiraka
alegin guztian
arturikan aurreko
bi oñen erdian.

Bilduraz eztiola
utziko pakean
mar-mar asten da Sultan

laguna ikustean,
begiak armaturik,
jasorik sudura
letagiñez puskatzen
duala ezura.

Pinto asitzen zaio
bertatik galdetzen
—Zer demoniñokeri
ari aiz egiten?
Zeñek burutara dik
etxe-mot onetan
astea oren lasai,
Sultan, lapur-etan?

Ez dek oroi nausiak
zeñen maite gaitun?
Gurekin dabilela
jostatzen gau-t'-egun?
Ez duala egiten
inoiz otordurik
aurena guri bioi
eman gabetanik?

Ori al-dek ematen
dioken eskefa,
gazi-kutxatik ostu
ardi-zar-iztefa?

Onelako pagurik
ez dik ark merezi;
bertatikan bear dek
iztefa or utzi.
Zakur danak bear dik
leiala, prestua;
edo ta dek, zakura
ez baño katua.

—Bertan jafai nai diat
ire esan leiala,
ikusten bait-det oso
bidezkoa dala.
Bañan, Pinto, nik orain
galdetxo bat iri
egin nai diat; tira
esan zaidak neri:
Baldin aari-izter au
uzten ba-diat nik,
Pinto nere maitea,
ez al-dek jango ik?

Besteri aolkua
nai dionak eman,
lenaz ikusi beza
bera beafer dan.

ITZ-ONTZIA.

Paris'en eta beste
Eri andietan
Ikusi oi dirade
Asko kafiketan,
Egunaz eta gabaz,
Gizon itz-ontziak
Jendez inguraturik
Daudela guziak.

Batek an egiten du
Artzaren orua,
Besteak or gabazko
Ontzaren oiua;
Azkenik beste batek
Arpegi berean
Paia eta negaia
Biak bat-batean,
Erakusten duela
Arpegia, ziñez,
Alde batetik paiez,
Bestetik negaiez.

Aien artean zan bat
Txikiratzalea,
Guztien gain-gaño
Gufinka-gilea.
Txit jende asko zegoen
Kafika-buruan

Aoak zabaldurik
Aren inguruan.
Kapa zabal batean
Zegoan bildurik,
Bultzaka, ezin leku
Inolaz egiñik.
Ojuka asi zitzaizkan:
—Ken ortik, ken kapa —
Belduez zezakean
Zerbait ala tapa.
Kapa kendu ondoren
Gufink egiten du
—Baña ain ongi!—jendea
Algaraz lertzen du.

Asten da bereala
Gufinkari abila,
Txapela luzaturik,
Bertan diru bila;
Eta mutiko batek
Or dio esaten,
Jokatuko diola
Gufinka egiten.

Apustura egiñik,
Biak asten dira:
Zafa lenengo eta
Ufengo mutila.

Aditu dutenean
Txikiratzalea
Oju egiten dute,
—Len bañon ohea!—
Ta aditu dutenean
Gero mutikoa
—Ken ortik, ken—e—
Jendea an dijoa. [sanaz]
Galtzarbe-sare bat du
Mutilak agertzen,
Eta txerikume bat
Antxen erakusten,

Esaten dielarik,
Tximurtxi batekin
—Ez nik, mutikotxo onek
Dik guñinka egin.
Zuek diozutenez,
Txikiratzaleak
Egin dizkik guñinka
Onek baño obeak.
Eñiak bazinduzte
Zuek buruzagi,
Ez uke justiziya
Ibiliko gaizki!—





OTSOA TA ARKUMEA.

Arkume bat jun zan bein
Ereka batera,
Egaritu zalako,
Ura edatera;
Irtetzen da otso bat
Aureko menditik,
Jartzen zayo edaten
Garaiko aldetik.

Bildotxa zegoan txit
Mardul, biribila;
Asko ibiltzen gera
Alakoen bila.
Asten zaio otsoa
Ojuka esaten:
—Mutil, zertan ari aiz
Ur guztia loitzen?
—Jauna—dio bildotxak—
Nai eta ere urik

Ezin zikin nezake
Nik beko aldetik;
Ikus beza berorek,
Baldin badu gura,
Or goitik emen bera
Datorela ura.
—Ala dek—dio—baña
Gaur ditut urte bi,
Ik zikindu idan añas
Emen ura neri.
—Nola izan diteke,
Arkumeak dio,
Baldin orain urte bi
Ez banintzan jaio?
—Arazoi dek—otsoak—
Dio erantzuten—
Oraintxe asitzen nak
Kontuan erortzen;

— 12 —

Ire anai bat uen;
Bai, bai, ire anaya
Ta egun ura, beñiz,
Bazekiat, jaya.
—Ez da, dio bildotxak,
Ofelako gauzik;
Ez det, jauna, nik izan
Beñere anairik.
—Ire amak, oñetaz
Bear zian izan—
Erantzunaz, otsoa
Laxterka asi zan

Bildotxaren ondotik,
Ta nai zuen egin
Mila puska gaxoa
Lau letagiñakin.
Eltzera dijoala
An bertan da azaltzen
Eiztari bat, eta du
Bi balaz pasatzen.
Onela kendu zizkan
Gure Jaungoikoak
Otsoari bildotxa
Jateko gogoak.

ETXE-SAGUA TA SORO-SAGUA.

Sagu sorotar batek
Sagu etxetia
Ikusi zuan lodi
Gizen ta guria.
—Adiskidea, dio
Bertatik esaten:
Zure mardultasunak
Guztiz nau aritzen;
Nonbait ongi ona da
Daukazun bizia;
Egia esateko,
Dizut enbidia.

—Nere bizibidea
Jakin nai badezu—
Erantzuten dio ark—
Zurea esazu.
—Ni—dio sorokoak—
Zelaiz-zelai nabil,
Ale bat edo beste
Ote-nezaken bil.
Askotan biurtzen naiz
Zulora lerturik,
Ale bat edo beste
Bildu gabetanik.

Orduan jaten ditut
 belar-zain mikatzak
 Bañan bai ikusi ere
 Este-min garatzak.
 Nere bizimodua
 Oña, adiskidea:
 Orain jakin bear det
 Nik ere zurea.
 —Ongi esaten dezu—
 Dio erantzuten,
 Eta or asten zaio
 Añoputz esaten:
 —Zure bi saietsetan
 Ongi det ikusi
 Ase ta betean ez
 Zeradela bizi;
 Argia agiri dezu
 Batetik bestera,
 Negu onetan zoaz
 Goseak iltzera.
 Eroen kontua da
 Nekez bizitzea;
 Sinistatu nazazu,
 Nik, adiskidea,
 Oraindikan ez dakit
 Zer dan nekatzea.
 Bizkitartean beti
 Ni nago uguiturik
 Jan baño jan nayago,
 Eta ezin janik.

Atoz, ikus dezazun
 Nola nik etxea
 Goitik bera daukadan
 Janariz betea.
 An daukatzit zintzilik
 Urdaiazpikoak,
 Gaztangoñak, lukainkak
 Ta txistor gozoak.
 Bakarik nago, eta
 Nai nuke laguna,
 Pozez igarotzeko
 Jostatzen eguna.—

Ozta soro-saguak
 Zuen au aditu,
 Berealaxe zion
 Atzetik jafaitu.

Etxera ziranean
 Elkarren ondotik,
 Sartu ziran jan-gelan
 Katuen txulotik.

Sorokoak ozta du
 Goratzen burua,
 Uste du an ikusten
 Duela zerua.

—Zer da au?—dio ojuka—
 Au bai dala mauka!
 Onelako gauzarik
 Munduan nork dauka?—

Pozez eroturikan,
 Trast, salto batean,

Igo, eta jartzen da
Lukainka-gañean.

Jan eta jan ari da,
Ezin uguiturik;
Ez du iñortxok ikusi
Alako jalerik.

Orlaxe ari dala
Sabela betetzen,
Katuaren miauak
Dirade aditzen.

Aditu bezin laxter,
Eta salto bian,
An etxeko sagua
Sartzen da kabian.

Ura ala ikusi eta,
Gero sorokoa
Laxterka ondotikan
Argana dijoa.

Nai baño nekezago
Sartu zan txulotik,
Sabela bait zeukan antxe
Lukainkaz beterik.

Ikusten du laguna
Ikaraz betea
Nekez ta lañi-lañi
Artzen asnasea.

—Zer da—esaten dio—
Zer da beldur ori?
Ze gertatzen zaik mutil?
Esan zadak neri.—

Arnas ezin arturik,

Dio erantzuten:

—Katuaren miauak
Ez dituk aditzen?

Ba'dituk lau etxean,
Eiztari ernaiak

Oiek jan zizkidatek
Nere bost anaiak.

Begira zak isatsa
Nola daukadan nik

Erdia lafutua

Beste erdia janik.

Doi-doia egun batez

Nian iges egin;

Pozikan gelditu nauk

Onenbesterekin.

Geroztik galtzen diat
osoro burua,

Aditzen dedanean

Katuen miaua—.

Au entzun zuenean,

Dio sorokoak:

—Sañi ba-dira ikara

Gaur bezelakoak,

Oa mutil, nai badek,

Deabru-etxera,

Naiago diat nik jun

Sustraiak jatera.—

Gabaz irtenik jun zan

Esanaz bidean,

— 15 —

Zorigaitzetik azke
Arkitu zanean:
—Obe diat nik izan

Beartsu pakean,
Eta ez aberatsa
Ikaren artean.



ESNE-SALTZAĪEA.

Neskatx bat zijoan bein
Plazara neguan,
Eskuan txantxiġa ta
Kaikua buruan.

Gorputz liraña zuen,
Geġia txit mea,
Īlea orporaño,
Uġe-kolorea;
Ortzak perlak bezela
Aoa txikia,
Begiak beltz aundiak,
Ezpaña goġia;
Ībilian iġori
Ezer zor etzion,

Itz batean, jendeak
Begiratzen zion.

Lasterka bere-buru
Zijoan izketan,
Itz egiten zuela
Izkera onetan:
—Esne au nerea det
Aitak ala nairik;
Au salduz diru asko
Artu bear det nik.
Gero bearko ditut
Aġautzak erosi....
Saski bat bete-bete
Izango det noski?

Laister udaberrian
Nik nere burua
Txiltoz ikusiko det
Dana inguratua.
Egiten diranean
Olanda, olasko,
Artuko det aiekin
Dirurikan asko,
Erosteke perian
Añera txefia,
Berexitzen dedala
Albait umazia.
Ugari izan bait-da aurten
Mendian ezkufa
Joaraziko diot
Laister tripaz luía.
Ta izango duelako
Urdaia lodia,
Artuko det onekin
Nik diru aundia,
Eta erosiko det
Txaltxo bat uñia,
Umeak egin ditzan

Etxekoen gixa.
Ta urte asko baño len
Ba'det nik ustea,
Arkituko naizela
Ganaduz betea.
Ta ozta izango al-da
Eñian neskatxik
Ezkontz-sari nik aña
Izango duenik?—
Baña asmo oiek egiten
Ari dan artean,
Ífixtatzen zaiozka
Bi oñak lufean....
Agur aren esne ta
Añaultz ta txitoak,
Agur txefi, txal eta
Sari guztizkoak.

Maiz oi dirade berdin
Gure uste utsak
Ta txakur gosearen
Gaberdi-ametsak.



ASTOA TA TXERÍA.

Asto zar bat bizi zan
Ukulu batean,
Eta txerri bat beñiz
Aren bazterean.

Txeñari astoa
Zitzaion bekaizti
Ikusten bait-zun ura
Lasai zala bizi.

—Ori—zion—or dago
Guziz uguiturik;
Ez dezake ezertxo jan
Iriñik gaberik;
Ni beñiz emen nago
Gosez idikirik:
Jan-tokian ez daukat
Lastoaren pixkik.
Noizik bein baldin ba-det

Milizkatzen zaia
Ba'nago jai ote-dan
Edo ta eztaia.
Goizetik aiatsera
Auxen da aren lana:
Tripa ezin jaso,
Ezer ezin jana;
Ni beñiz ortxe nabil
Beti zamaturik,
Indařak galdu eta
Ezin igiturik.
Atz egiten diote
Ari bizkafean,
“Maitetxoa!” esanaz,
Jana ematean;
Ni zamaren azpian
Iñork ez uřiki;

Austeituzte egunean
Nerekin makil bi.
Zenbat eta daukadan
Indar gutxiago,
Ainbat eta gañean
Det makil geiago.

—

Au oi zan astoaren
Goizeroko izkuntza
Jainkoari esanaz:
—Indazu laguntza.

—

Ostegun gizen egun
Deritzan goizean
Dan-dan-dan asten dira
Etxeko atean.

Esnatzen da astoa ta
Eietik du ikusten
Arakiña bařena
Deadarka sartzen,
Esanaz: goazen, goazen:
Non dago txerřia?

Neskameak arturik
Eskuan pazia
Gaxoari idikitzen
Dio azkar eia.

Irtetzen da txerřia
Doi-doi ixtegitik,
Ta artzen du arakiñak
Belarřietatik

Eta sartutzen dio
Labaintzar zořotza
Eta ematen antxe
Gogor eriotza.

Nork esan astoaren
Bildur labořia
Noiz elduko beretzat
Eraso gořia!

Burutik oñetara
Izerdiz bustirik,
An zegoan gaxoa
Txokoan ixilik.

Bařa alde egin zuan
Noizpait arakiñak
Eta bukatu ziran
Astoaren miñak.

Orduan esan zuen
Bere bařenean:
—Jainkoari eskeřak
Bizi naizenean!
Nik nere lagunari
Espa pixkat nion
Ez bait-nekian, ba, zer
Iltze zegokion.

Bařan gaurtik auřera
Ez det nai iriñik
Baldin il bear bada
Ořela gazterik.
Betoz nere gañera
Amar mila makil,

— 19 —

Askoz naiago det nik
Onela zañik il.
Berdin ikusia da

Ez dala atsegiñik
Mundu onetan iñon
Zerbait gabetanik.

BERITSUA.

Tristan, ikaslea zan,
Gutziz beartsua;
Buru aundikoa, bai,
Bañan beritsua.

Aberastu nai zuan....
Ez da gogo txarā
Baldin bide onetik
Aberasten bada.

Baña gutxi dirade
Galdetzen dutenak
Zein diran bide oker
Eta zein zuzenak.

Asten da gure Tristan
Eñiz-eñi deitzen
Abereai diela
Itzegin-arazten.

Oñā non bereala
Dakian Eñegek
Nolako esku ona
Dadukan Tristan'ek.

Bere-berealaxe
Deitzen du Madril'a
Onen gizon jakintsun
Gutzizko abila.

Eñege asten zaio
Pozturik esaten:
—Omen-dakik astoai
Itz egin-arazten?

Ba'diat nik etxean,
Asto bat emea;
Luzaro edan diat
Nik aren esnea.

Berari zor zioat
Nere osasuna;
Oñetxegatik diat
Nik oso laguna.
Orain aterako dek
Kontua emendik
Naiko ote-dedan entzun
Añetxan itza nik.

Tristan'ek dio:—Jauna:

Berofek ba'daki
Kaska-gogor dirala
Astoak osoki.
Alare amar urte
Gutxi gora bera
Berofek entzungo du
Asto onen euskera.

—

Gelara jun ondoren
Dator éregea
Zakeltxo bat eskuan
Ontz-ufez betea,
Eta ematen dio
Tristan'i esanaz:
—Pozikan izango nauk
Tristan, ire lanaz,
Amar urte-buruan
Nik ba-det ikusten
Nere asto maitea
Izketan jarduten.
—Ikusiko du, bada,
Ez dala izlaririk
Asto auxe izketan
Autsiko duanik.

—

Jil, aren adiskide
Eta éritaía,
Au aditu ta ezin
Idukirik paía,
Asten zaio esanaz:
—Deabruz betea,
Ofela engañatzen
Al-dek Éregea?
Iges egintzak, Tristan,
Lasterka emendik,
Ostikoka ez ba-dek
Egon nai zintzilik;
Ez bait-dago iretzat
Beste saririkan
Urkabetik zintzilik
Iltzea baizikan.
—Jiltxo—dio Tristan'ek—
Guxtiz dek luzea
Eskatu eta eman
Didaten epea;
Amar urte oietan,
Eutsi epe oni:
Ez gaituk ilko érege,
Astoa edo ni?

ABEREAZ IZURIAREKIN.

Baso eta soroak,
Zelaiak, mendiak,
Abere ilez osoro
Zeuden estaliak.

Zoritxañez zitzaien
Etofi izufia,
Jotzen duana iltzen dun
Gaitz izugafia.

Leku artan leoia
Bait'zegon erege,
Bildurez geldi zedin
Mendekorik gabe,
Deitu omen-zituen
Abere guztiak,
Utzirikan alde bat
Bakarik eriak.

Joan ziran lasterka
Al-zuten lenena,
Zein baño zein arako
Ote-zan auren.

Muño baten gañean
Leoia jari zan,
Ta andik mañu-ojuka
Onlaxe asi zan:
—Nere seme maiteak:
Gauza izugafia
Gure artean sortu

Zaigun izufia!
Gelditu beña naiz
Ni zuen erege,
Egun asko baño len
Inor ere gabe.
Guztioi esateko,
Da nere ustea
Onenbeste abere
Galtzen ez uztea.
Izuri oni omen
Deritza kolera;
Eta deitu zaituztet
Guziak onera,
Nolabait Jaungoikoa
Dezagun eztitu,
Eta kolera gabe
Gaitezen gelditu.
Uste det, eztitzeko
Aren mesedea,
On dala gutako bat
Gaur emen iltzea,
Eretzen degularik
Gero aldarean,
Kolerak utzi gaitzan
Lenbaitlen pakean.
Nor da gure artean
Gaitzikan geiena

Jaio zanetik onontz
 Egiten duena?
 Au da, nere semeak,
 Ez daukat dudarik
 Jaungoikoa daukana
 Orla asafaturik.
 Au aldarean il ta
 Eretzen ba-degu,
 Bereala Jainkoa
 Eztituko degu,
 Gelditzen diralarik
 Gure pekatuak
 An goien osoro ta
 Betiko aztuak.
 Asi bedi bakoitza
 Esaten bereak,
 Aditurik aurrea
 Guztiok nereak:
 Beñere ez det izan,
 Aitortuko det nik,
 Aberez asetzeko
 Batere erukirik.
 Zezenak, beiak, auntzak
 Eta basurdeak
 Maiz bete izan dituzte
 Nere este goseak.
 Gaiztakeri txar oiek
 Dirade nereak,
 Orain esango ditu
 Bakoitzak bereak.

—Ez jauna, ez—ojuka,
 Dio azeriak—
 Oriek ez dirade,
 Ez, gaiztakeriak.
 Non-nai, mendean bizi
 Diraden jendeak
 Bazkatu oi dituzte
 Beren eregeak.

Katamotzak zionez,
 Baitare otsoak,
 Aiek jan oi zituzten
 Artalde osoak.

Aldi askotan zion
 Beñiz azeriak
 Ustu izan zitula
 Ark olotegiak.

Pekatuak esaten
 Bakoitza dioa
 Eta azken-azkenean
 Badator astoa.

Afantzaz asitzen da
 Bereak esaten,
 Eta modu onetan
 Ojuka ekiten:
 —Jaunak, ni oroitzen naiz
 Igande batean
 Bazkatzen nebilela
 Goizetik lafean,
 Inon ere belarik
 Ezin arkiturik,

Ez bait-zuan luzaro
Egiten eudirik
Itsuan sartu nintzan
Gari-zelaiean;
Baña, jauna, egiaz
Zan uste gabea;
Eta ezin gogora
Etoñi zait neri
Jan nituan ala ez
Buru bat edo bi.

—
Atera bezin laster
Itz oiek aotik,
Azeriak ojuka
—Ez dago zalantzik—
Esaten du—Ene, ba!
Orixen da, ori,
Emen sartu diguna
Izuria guri.
Bereala bear du
Ankaz gora jañi,
Aldarean dezagun
Ederki etzañi.

—
Pizti danai ederki
Zitzaïen iduri
Bizia kendutzea
Asto gaxoari.
Asto bereala
Gelditu zan ilik

Ez izanagatikan
Batere eñurik.
Eñegek inguruan
Zeuzkan mutikoak,
Eta ziran kata-motz,
Azeri, otsoak,
Iñi egiten zuten
Astoa ala iltzean,
Il eta ankaz gora
Surtan etzartzean.

Mundu onetan beti
Indaia dutenak,
Ez ba-dirade ere
Mutilik onenak,
Esan oi da dirala
Txit gizon prestuak,
Estaltzen diralako
Aien pekatuak.

Beste aldetik beñiz
Jende beartsua
Ardit batengatikan
Dabil zatitua.

Bañoan gertatzen ba-da
Au gure artean,
Besterik izango da
An gora jutean;
An ez da aundirik iñor,
An guztiok berdin,
Naiz eñege emen izan
Naiz izan ikazkin.

AZERIA TA OĪOA.

Azeri zar aundi bat
gosaldu gabea
zebiñen sasiz-sasi
amofuz betea.

Īluntzera zijoan
eta jaki-izpirik
jan gabe arkitzen zan
gaxoa oraindik.

OĪo batek karakaz
egiñik onetan
an dijoa laisterka
anka muturētan.

Ozta oĪotegira
alderatu al-zan
oĪo guztiak iges
an dijoaz egan.

Bakafik gelditu zan
otaře batean
kolkaturik zegon bat
afautzen gañean.

Aldamenetik zaio
azeri zařa asten

belafī-belařira
goxorik esaten:

—Zer da ori, maitea?
Kiorik al-dezu?
Ala afautza egiten
zaude ofela zu?
Atera bear nazu
kezka onetatik:
maitea, nola zauden
jakin nai nuke nik.

—Nola nagon? Ai, jauna!
orain beintzat gaizki;
bañan juten ba-zera
jařiko naiz ongi.

Zenbati, nola gauden
galdez daudenean
ez diegu esaten
geren bařenean
azeriari esan
ziona oĪoak
miñez zeukan orduan
saskian kioak?

TXITXAÑA ETA TXINGURIA.

Iduritzen zitzaion
urikigaria
txitxari, auzoan
zuen txinguria,
ikusten zuelako
lertutzen lanean
eguna pixkatxo bat
ondutzen zanean.

Askotan esan zion,
ez iriz, benetan:
—Ez diat lanik egin
nere egunetan,
eta uste diat nik,
nere mutikoa,
lan egiten duena
dala txit astoa.
Zer ibili bear dek
beti arastaka,
ezin gari ale bat
kafaiaturika,
erori eta jeiki
beti jira-bira,
eramateagatik
ale bat kabira?
Bizibide txar ori

utzak txinguria;
egin zak nik egiten
deraden guzia.—

—
Txinguriak jakinaz
gurasoengandik
ezin biziko zala
lanik gabetanik,
txitxaren esanik
etzuen aditu
eta bere lanari
oi zion jaraitu.

Bitartean txitxak
zuan igarotzen
uda guzti-guztia
sasian kantatzen.

Baña gaizki jo zion
soñua kukuak,
uda joan-da zuan
atzeman neguak,
eta, bizirot bait-du
kopet itsusia,
jun ziran txitxar-kanta
eta erausia;
eta buruturikan

udako asea
otzak ekañi zuen
berekin gosea.

Txitxaña gelditu zan
argala, ixila,
este zimur-zimurak
eta erdi ila.

Oroitzen da an auzoan
ba'dala zer jana,
ta an dijoa añastaka
txingufiagana.

Eta esaten dio
doi-dola argalez:
—Adizkidea, dizut
eskatzen eskañez
zure gordaidutikan
pixkatxo bat zer jan,
nolabait negu beltz au
igaro dezadan.—

Ikusi zuenean
ain argal txitxaña,
txingufiak, egiñaz
gogotikan paña,
—Ara!—esaten dio—

Zu onontz, txitxaña?
Kantari ona zera
beargile txaña.

Uda igaro dezu
erausian, kantan,
ni nebilen artean
lertzen lan eta lan.

Eta orain nai dezu
txingufi-nekeak
bete ditzaten txitxar
alpeñen esteak?

Ez, ez ofelakorik,
on da ikustea
zer dan mundu onetan
alper izatea.

Ni len nekatu naiz ta
ba'noa jatera;
zu geldi egon zera,
zoaz kantatzera.—

—

Lagundu bear zaio
beargileari,
ez ordea beñere
alpeña danari.

IGELAK ÉREGE-ESKEAN.

Abere-mot bakoitzak,
Lengo aldietan,
Éregea ba'zuten
Toki guzietan.

Gabetanikan zeuden
Igelak bakañik,
Ozta-ozta bait-ziran
Irteten loietik.
Bañan ez bait-da atsegin,
Naiz izan érege,
Bizitzea loipean
Andik irten gabe;
Igel gaxoak zeuden
Añas lotsaturik,
Iñork ez zielako
Egiten agufik.

Biltzen dira guziak
Beren batzañera
Eta diote: —Goazen
Añean jartzera
Jupiter aundiari
Eta esatera:
"Jauna, Zugana gatoz
"Érege eskatzera.

"Abere-mot bakoitzak
"Izanik berea,
"Guk ere nai genduke
"Al-balitz gurea".

Par-íñia egiñez,
(Ez bait-zerekiten
Igel txori-buruak
Zer eskatzen zuten,
Antxe bizi bait-ziran
Elkañen artean
Kantatu eta josta,
Ederki pakean)
Esan omen-zioten
Beren Jaungoikoak:
—Añen, ez zaitezte izan
Oñen txoroxkoak;
Ez bait-dago munduan,
Buru gaberikan
Bizi izatea baño
Zori oberikan.
Ez al-dezute, bada,
Zer jana, pakea?
Zertarako dezute
Orain éregea?

—Jauna—erantzun zu—
Ba-dute besteak, [ten—]
Eta lotsatzen gaitu
Guk ez izateak;
Ez gera gutxiago
Noski aiek baño;
Lotsarikan asko izan
Degu oraindaño.
—Ori ofela ba-da—
Dio Jupiter'ek
Utsikan ez dizute
Egingo elegek.

Au esan ondorean,
Ora non batetan
Zerutik zingirara
Zerbait erortzen dan.
Aretxek ematen du,
Arek, zartadea!
Galtzen bait-dute danak
Ia-ia kordea.

Pixka-banaka ikarak
Aztu ondorean,
Eta ezaguera
Etofi zanean,
An dijoaz lasterka
Sartzera lenbaitlen,
Gutxienaz kana bi,
Loiean bañenen.

Zortzi egun aietan

Ez zan bat bakarik
Loietik irtetera
Ausartutzen zanik.
Noizbait irteten dabat,
Eta dio: —Ja-jai!
Au al-dek, ba, elege?
Egur-puska bat, bai....

Ikusi zutenean
Zanaren egia,
Nork esan aien lotsa
Ta asefe bizia!

Ba'dijoaz lasterka
Jupiter'en bila
Ta esaten diote:
—Jauna, esker mila;
Gaur bidaldu diguzun
Elege prestua,
Itsua da ta gofa,
Gañera mutua.
Beste bat nai genduke
Ernaia, bizia,
Jendeari agintzen
Obeto ikasia.
—Zoazte ortik, joan—
Diete erantzuten—
Berdin ez dakizute
Zer darabiltzuten.

Bialtzen die bada

Efege befi bat:

Amar kana luze zan

Sugetzar bizi bat.

Zingiran sartu eta

Asi zan batetan,

Igel gaxoai jafai

Arapa eta jan.

An dijoaz igesi

Bera eta gora

Batzuek loi-azpira

Besteak kanpora.

Madarikatzen dute

Guztiak efege

Obeto ziralako

Agintari gabe.

Onela oi dirade

Txoroen kontuak;

Ez die pafa gaizki

Egiten munduak.

Ongi geran orduan,

Obeto nai degu,

Galdu eta gero ona

Ezagutzen degu;

Baŕan orduan nola

Dana bait-da alperik

Ez oi zaigu gelditzen

Damua besterik.





ASTO BURUGOGOÑA.

Asto bat zebilen bein
Bazkatzen lañean
Bururaño estaltzen
Zuen belañean.

Bai pozik zebilela
Gure aberea!
Ba'zirudin Txina'ko
Enperadorea.

Belañez ase, eta
Egiñaz añantza,
Guztia zan arentzat
Jaia eta dantza.

Lepoa luzaturik,
Bi belañiak zut,
Añantzaka ikusten
Dedala uste dut.
Onela dabilela
Batetik bestera,

Oroitu gabetanik
Jutea etxera
Noizik bein luze-luze
Etziñik luñean
Sabelez gora jañi,
Zankoak aidean,
Zaldalea irabazten
Zuan, soin guztia
Gelditzen zitzaiola
Autsez estalia
Ta bukatzen zuala
Azkenean pesta
Añantza joaz... nola
Esan bear ez da.

Onela dabilela
Astoa mendian
Nausiak ikusten du
Ez txit ufutian,



Ta deitzen dio:—Potxo,
 Atorkit onera,
 Etsaiak dijoazkik
 Or ire gañera;
 Ez al-dituk aditzen
 Tronpet-atabalak,
 Eta txistuka oronz
 Dijoazen balak?
 Ator onuntz lasterka,
 Edo aiz galdua,
 Ukuluan an daukak
 Toki segurua.
 —Potxo sasi-tartean
 An dabil bazkatzen,
 Nausiari entzungor
 Diola egiten.
 Egur bat artu eta
 An dijoakio,
 Eta burutik bera
 Erasotzen dio,
 Esaten diolarik:
 —Esker gabekoa,
 Nik oju egin eta
 igesika oa?
 Asto madarikatu,
 Nar, buru-gogofa,
 Noiz ezkerro egin aiz
 I neretzat gofa?
 Ba-dituk bizi ire
 Aita eta aitona

Ezagutzen zutenak
 Beren zoriona!
 Goazen, goazen emendik
 Goazemak etxera,
 Merezi ez dek baña,
 Otea jatera.
 Astoak nausiari
 Dio erantzuten:
 —Asmo beñi bat orain
 Nengoan egiten.
 Arapatzen ba'naute
 Ni emen etsaiak,
 Gaitzik egingo ditet
 Aien asta-zaiak?
 Edo aien mendean
 Gelditzen ba'naiz ni,
 Ipiñiko dizkiet
 Gañean txalma bi?
 Ni bezelakoentzat,
 Nere nagusia,
 Nere ustez etsaia
 Da mundu guzia.—
 Patu gaiztoarekin
 Danean bat jaio,
 An edo emen bizi
 Oro-oro bat zaio;
 Eta gerako aldian
 Ezer ez izanik,
 Ez oi du aberatsak
 Duten ikararik.

BELEA ETA AZERIA.

Zur-aritz luze baten
tontor- tontoŕean,
bele bat gelditu zan
jun dan egunean

Bere mokoan zeukan
gazta bat guria,
borda-leio batetik
ebatsi beŕia.

Orduntxe azeri bat
arkaizpe batetik
irten-da an igaro zan
zur-aritz azpitik.

Ozta zuan gaztaren
usaia usmatu,
gora begiratuaz
bertan zan gelditu.

Ta ikusi zuenean
ain gazta guria,
zintzilika zerion
aotik lerdia.

Geldi-geldi zegoan
zur-aritz azpian,
gazta nai, ezin izan
amuru goŕian.

Bere baŕenen zion:
—Ezin gora igo!

igotzen ba'nauk ere
ez likek balio!
eta nik nai ba-nikek
ar gana gora joan,
iges egingo likek
bereala egan.
Zerbait beste gauzarik
beaiat asmatu;
tat tat oraintxen bertan
zaidak gogoratu;
ezin obeagoko
asmakaria dek,
sei minutu baño len
gazta nerea dek.
—Agur, adiskidea,
—dio betik deitzen—,
zure edertasunak
nau guztiz txoratzen
moko oria dezu,
luma beltz-urdiña
gorputz guztia lerdien,
ederki egiña;
edeŕez, alde-alde
joa dezu goia;
azkaŕez berdiñikan
ba-dezu, doi-doia:

sinistatu nazazu:
zalantzarik gabe,
egaztien artean
zu ziñake eŕege,
zeran bezin edeŕa
bazendu kantua;
ala dezun, ez dezun
or dago kontua.

Beleak aditzean
zurikeri ura,
laister etortzen zaio
kantatzeko gura.

Ozta idikitzen du
gaxoak mokoa,
bereala luŕera
da gazta goxoa.

Azeriak algaraz
omen zion deitu:
—Oŕen kanta edeŕik
ez det nik aditu.

Orain nik gazta jaten
dedan bitartean,
goza zaitez zu zere
aŕotasunean:

Jaungoikoak dizula
luzaro osasuna,
zure kanta ezia,
zure edertasuna;
poztun izango nauzu
ni nere aldetik
sabela betezkero
maiz zure mokotik.—

Au esan, ta joan zan
bere gaztarekin;
belea gelditu zan
sabel utsarekin.

Zurikatzale-itza
duenak sinisten,
onelakoxe txalmak
ditu eramaten.

OĪARA ETA AZERIA.

Olar bat zebilen beln
era edeŕean,
soroa joŕatuaz,
jaten goiz batean.

Kakaraka egiñez

oŕa non batetan
igotzen dan luŕetik
zugatzera egan,

Begira negokion
ni bazter batetik;

ezin begiak kendu
iñolaz gañetik.

Gain-gañean zegoan
ederki jañirik;
olar edefagorik
ez det ikusi nik.

Atzapar bat ba'zuen
kana batekoa,
atzeko azkazala
izugarizkoa;
bulara txit lodia,
lepoa laburra,
begi ori-gorriak,
mokoa makurra:
atzeko lumak jo nai
zioten burua,
zintzilik goitik-bera
egiaz makua;
galdor goñi-goñia
zeukan txit zuzena:
artan ageri zuan
ark bere kemena.

Aren luma edefak
eguzki-argitan
esnatutzen zituzten
diztira bizitan,
lausotzen nintzan eta
ez dezaket esan
gure olar ori zer
margotakoa zan;

ain laister zirudian
zilara, urrea;
ain laister ari-bitxi
diztiraz betea.

Ari begira ezin
nintzan ni aspertu;
ez uste izan dedala
ezertan edertu.

Oraindik unetxo bat
igaro baño len,
azeri zar aundi bat
ora non datoñen.
Ikusten du olara,
gelditzen da bertan,
betik gora asten zaio
onelaxe izketan:
—Gora, gora, maitea!
Auxen bai beñia!
Pakeak egin dira;
gaur mundu guzia
bizi diteke lasai
bildur gabetanik;
iñork ez du añera
izango etsairik;
katu eta txakurak,
otso, arkumeak,
azeriak, olarrak,
gera adiskideak.
Jetxi zaitez lasterka,
bildurik ez izan;

elkafi laztantxo bat
beaiogu eman.

Olañak bereala
dio erantzuten:

—Zaude pixka-pixka bat;
ofa non datozen
iru azeri-txakur,
ortxe otadian
lasterka lau oñean
lertzeko zorian.

Ez dago zalantzarik:
dionu egia;
oiek dakarte nunbait
pakeen beña. —

Aditu bezin laister
txakuren izena,
an dijo azeria
alduen lenena.

—Zaude, zaude—olaña
asten zaio deitzen—
bereala nazaizu
emendik jetxitzen. —

Ez dago gelditzeko
gure azeria,
ba'dirudi igesi
dijoan erbia.

—Lasterka noa — dio, —
bereala or naiz
onelaxe ibiltzea
oi degu guk txit maiz. —

Guztiz asko jakina

—
zan azeri zaña,
baña olaña ere
ez bide-zan naña.

AUNTZAK ETA AKERAK.

Munduan espa txaña
batak besteari
maiz izaten diogu,
edo obeto, beti.

Auntzak ikusirikan
zirala akeñak

jendeen arabera
gutzizko edeñak
eta berak eragin
oi zutela paña
berak etzutelako
zintzilik bizaña,

jun omen-ziran beren
 Jaungoikoagana,
 esanaz:—Jauna, gatoz
 gaur beroréngana
 adierazotzera
 zeñen lotsagafi
 dan gutzaz egitea
 abereak ifi,
 kokotzean ez omen-
 -degu-ta bizañik
 akeñen motakoak
 gu ere izanik.
 Jauna, gure kokotza
 bizañez betea
 gelditzeko asko da
 zuk nai izatea;
 ta ustea ala degu
 etxera emendik
 biurtuko gerala
 bizañez jantzirik.—

Jaungoikoa onetan
 zegoan glorian
 auntzak entzunaz, iriz
 lertzeko zorian;
 eta esaten die:
 —Zoazte emendikan
 ez esan orélarako
 txorakeririkan—

Baña negañez auntzak
 omen ziran asi,

arat-onat ibiliz
 beeka sasiz-sasi.

Kupiturik orduan
 Jainkoa guztia,
 eta artzen zuela
 izkera eztia:
 —Oñra—esan zioten—
 Bertatik bizaña;
 Danak egingo dute
 Orain zuez paña.

Bestela gertatzen da
 gaurko egunean,
 akeñak auntz nai dute
 izan geienean;
 gizonak andrezkoen
 itxurak arturik
 ikusten dirade maiz
 tximu biurturik.

Auntzak auntz bear du ta
 akeñak, akeña,
 gizonak indartsua,
 andreak edeña;
 bestela buruz bera
 jungo da mundua,
 eta geldituko da
 betiko galdua,
 ematen zaiolarik
 eñu Jainkoari
 nork eman beañean
 bere buruari.

LEOIA TA TXIMUAK.

Leoi bat irten zan bein
zulotik eizera,
gosez irikiturik
zer jana arkitzera.

Alpefik ibili zan
goiz guzti-guztian
ezin arkiturikan
eizerik mendian.

Muño baten gañera
igo ondorean,
nekaturik zegoan
lo bete-betean;
ora non bat-batetan
tximu-irintziak
igarozten dizkion
bere belafiak.

Esnatzen da batean,
jartzen da begira
irintzia datozen
aldeko mendira;
begi zorotza zuen,
urun egonaren
eiza ikusitzen du
basoan bafenen.

Badijoa poliki
tripaz luña joaz,

lerdea dariola
jateko gogoaz.

Alderatu zanean
baso bafenera,
an dijoaz tximuak
zuaitzen gañera.

Amoratutzen zaio
txalma andi onekin
gosez irikiturik
ez daki zer egin;
artzen du tximu batek
eskuan ezkuña,
ta jaurti eta dio
odoltzen suduña;
beste batek ausitzen
du beriz eguña
eta zauritzen dio
txit, bizkar-ezuña;
anka bat jaso eta
txakuraren gisa
egiten dio batek
zar-zar goitik pixa:
azkenik beste batek
jasorik isatsa
ortxen egiten dio
beste zerbait saltsa.

Onela zital aiek
leoi indartsua
uzten dute ixekaz
aŕas lotsatua.

Burua makurturik
ba'dago leoia
ez dezakela iritxi
arbolaren goia.

Urgunka badijoa,
bide bazteŕera,
etziñik an artzen du
ilaren tankera.

Tximuai, ikusirik
odola ixurtzen,
egiazki il dala
zaie iduritzen.

Bere-berealaxe
tximinotegia
goitik bera saltoka
jeisten da guztia;
inguratutzen dute
ilaren gorputza,
algaraka diote:
—Au triparen utsa!—

Batak egiten dio
orzka belafitik,
besteak tiratutzen
dio isatsetik:
ori ezer ez dala,
au bai ausardia!
lafutu nai diote
atzeko aldia.

Jeikitzen da batetan
leoia luŕetik,
ez zaio bat itzultzen
dagoan lekutik;
iltzen ditu guztiak
ortzaz, atzapaŕaz
eta bere isatzaz
ezker-eskui joaz,
utzitzen duelarik,
zer negargaŕia!
luŕa zan bezin zabal
tximuz estalia.

Argatik esan oi da,
etsai agiria
ez dala ain gaiztoa,
ta bai estalia.



SUGEA ETA NEKAZARIA.

Gizon bat zijoan bein
zelaitik etxera
goiz guztian lan egin
eta bazkaltzera.

Ikusten du bidean
etziñik sugea
otzak erdi ilean ta
korderik gabea.

Kupiturik sartzen du
gaxoak kolkoan
ango bero gozoaz
pizteko asmoan.

Etxera jun zaneke
sugea asi zan
kolkotikan kanpora
atera nairikan.

Gañetik botatzeko

gizonak artzen du
eta suge gaiztoak
orzka pozoitzen du.

Oña eskeñ edeñak!
zitalen eskutik
ez du izango iñork
beñere gauz onik.

Ilabete baño len
suge ura bera
otzak ikaraturik
dator sukaldera.

Ojuka asten dira
etxeko guziak;
jañaitutzen diote
moñoi-nagusiak.

Sartzen da ukuluan,

— 40 —

ba'dabiltza bila;
arkitzen dute eta
uzten dute ila.

Zitalkeriak ez du
beñere gauz onik
eta iñork ez du nai
ikusi zitalik.

EULIAK.

Abaraska batean
zegoan eztiak
beregana zituen
milaka euliak.

Jan baño jan naiago,
nabarbenkerian
zebiltzan leporaño
sarturik eztian.

Azkenean! guztiak,
oñak itsatsirik,
bertan gelditu ziran
ase eta ilik.

Au egiten balute
euliak bakarik,
ez litzake, kristabak,
zertan samindurik;
baña ala izan oi dira
gizonen erdiak,
batzuek sabelzaiak,
besteak ordiak:
eta orla il oi dira
gaztetasunean,
bizi nai dutelako
ase ta betean.

